

## Bilbon, 2000.eko martxoaren 30ean eta 31an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,  
H. Knörr, buruordea, (30ean)  
P. Goenaga, idazkaria,  
J. A. Arana, diruzaina,  
P. Altuna,  
M. Azkarate,  
P. Charriton,  
J. L. Davant,  
X. Diharce,  
A. Iñigo,  
X. Kintana,  
J. M. Lekuona,  
B. Oihartzabal,  
P. Ondarra,  
Tx. Peillen,  
P. Salaburu,  
J. San Martin (31n)  
I. Sarasola,  
J. M. Satrustegi  
eta A. Urrutia (30ean)  
euskaltzainak,  
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-  
kudeatzailea eta  
M. Gorrotxategi, Onomastika  
batzorde idazkaria (lehen gaian)

Bilbon, Euskaltzaindiaren Plaza Barriko  
egoitzan, 2000.eko martxoaren 30ean eta  
31n bildu da Euskaltzaindia hileroko ba-  
tzarra egiteko.

Ostegunean, arratsaldeko lauak eta ha-  
marrean eman zaio hasiera bilkurari. Par-  
te hartu dutenen izenak ezkerreko zuta-  
bean jasotzen dira. Ezin etorria adierazi  
dute E. Larrek bi egunetarako, J. San  
Martinek osteguneko bilkurarako eta H.  
Knörrek eta A. Urrutiak ostiralekorako.

*Aurreko batzar-agiriak onartzea.*

Inoren oharrik ezean, ontzat eman dira  
aurreko hileko bilkuretako bi agiriak.

*Euskaltzainburuaren hitzak.*

Juan Maria Uriarte Donostiako apezpiku  
berriari egindako bisitaz hitz egin du le-  
henbizi euskaltzainburuak. Hilaren 17an  
izan zen eta giro atseginean igaro zen  
dena.

Terence H. Wilbur hizkuntzalari eta euskaltzain ohorezkoaren heriotzaren berri  
eman du ondoren. 76 urte zituelarik hil da Los Angelesen martxoaren 7an. Hil berri  
txostena egiteko Andolin Eguzkitza urgazleari eskatuko zaio.

Euskaltzaindiarekin harremanak dituzten Herri aginteen artean ere aldaketak izan  
direla azaldu du Haritschelhar jaunak: Josune Ariztondoren lekua hartu du Xabier Aiz-  
puruak eta honek utzitakoa, berriz, Lorea Bilbao andreak.

Azkenik, Euskal Herriko Unibertsitatean egin berri diren hauteskunde onorioz,  
Euskaltzaindiak Miren Azkarate eta Pello Salaburu euskaltzainak nolabait berreskura-  
tu dituela esan du.

● *Eskuartekoak.*

*Euskaltzaindiaren araudi aldaketa BOE-n.*

Madrilero *Boletín Oficial del Estado* delakoan (martxoaren 4ko alean) argitaratu eman da 272/2000 Errege Dekretua, zeinetan Euskaltzaindiaren araudiko zenbait artikuluren aldaketa ontzat ematen baita. Euskaltzain guztiei eman zaie dekretuaren kopia bana.

*Literatur sariketetarako epaimahaikide proposamenak.*

Urtero Madrilan ematen diren "literatur sari nazionaletarako" Euskaltzaindiaren izenean parte hartuko duten epaimahaikideen izendapena onartu da: poesia arlorako, Lourdes Otaegi; narratziarako, Patri Urkizu; saiakerarako, Jon Kortazar; antzerkirako, Ana Toledo; haur eta gazte literaturarako, M. Jose Olaziregi eta itzulpen sarirako, Lourdes Auzmendi.

"Premio Nacional de las Letras Españolas" delakorako, azkenik, Miren Azkarate izendatzea onartu da.

● *Hizkuntza arauak.*

● *Onomastika: "Lapurdiko udal izendegia" onartzea.*

Mikel Gorrotxategi jaunak egin du aurkezpena, H. Knörr batzordeburuaren ezin etorriagatik. Aurkeztutako ohar guztiak dagokien izenaren azpian bildu dira euskaltzainen lana errazteko eta arazoa argiago ikusteko. Batetik, 1966an Dassancek egindako zerrenda oinarri harturik Euskaltzaindiak 1979an argitaratutako izendegian biltzen diren izenak ematen dira eta, ondoan, proposatzen diren aldaketak. Zerrenda honi buruz iritzia emateko eskatu zaie Iparraldeko euskaltzainei eta horien arabera egin dira zenbait aldaketa proposamen.

*Azkaine/Azkain* hautuak ekarri du lehenbiziko eztabaida. Oihartzabalek ez du ikusten zergatik hautatu behar den bietariko bat, biak erabiltzen direla kontuan izanik. Peillenen ustez, formarik zaharrenari eutsi behar litzaioke, erabilia bada. Eztabaida pisika bat izan da eta azkenean, Oihartzabalek esan du bitasunarendako lekurik ez bada, berak *Azkaine*-ren alde egingo lukeela, hau baita gehien erabiltzen dena. Bozkatu da eta hamaika boto izan ditu *Azkaine* formak bere alde, lau kontra eta bat zuri. Horrenbestez, txostenean proposatzen zen aldaketa ez da onartu: *Azkaine* bere horretan geratu da.

*Biarritz/Miarritze* forma bikoitza onartzea 1994an erabakia du jadanik Euskaltzaindiak.

*Donibane Lohizune* marratxorik gabe ematea proposatzen da txostenean eta hala onartu da.

*Beskoitze* forma ez du atsegin Kintana jaunak, nahiago du *Beraskoitze*. A. Iñigo-ren ustez, badirudi ez dela beti berdin jokatzeko: batzuetan ahozkoari ematen baitzaio lehentasuna. Oihartzabalek erantzun dio esanaz ez dela hori egia eta zerrendan proposatzen diren forma guztiak testu idatzietatik jasoak direla.

*Ahazparne* forma dela eta, *Hazparne* behar duela esan du Haritschelhar jaunak. Horretan ez dela dudarik. Horrela utzi da, hortaz.

*Uztaritze/Uztaritz* bikoteaz ere eztabaidatu da ondoren. Azkenean, *Uztaritze* forma utzi da.

Aurkezpen-eztabaida honen ondoren, zerrenda osoa bozkatu da eta hamalau boto izan dira aldekoak. Beraz, onartutzat eman da.

Herritarren izenak direla eta, lehengo zerrendan ematen zen *doniandar*-en ordez, *donibandar* sartu da. Bestalde, zerrendan jasotzen diren zenbait hitzetan ageri den *-uiar* amaieraren ordez, *-uar* ematea onartu da: *itsasuar, jatsuar, haltsuar*. Hamasei boto izan ditu proposamen honek.

### ● *Hiztegi Batua.*

Miren Azkaratek, orain arte eskuartean erabili direnez gain beste dokumentu bat aurkeztu du. Jasotako oharrak beste modu batera sailkatzen ahalegindu da eztabaida errazteko asmotan.

Bestalde, otsaileko bilkuran onartutako zenbait aldaketa ez dira, antza, bidezko, batzarrak berak hartutako erabakiaren kontrakoak zirelako. Aurreko bilkuran erabaki zen ez zela gauza berririk gehituko, zerrendako hitzen batean biltzen den informazioak, koherentziagatik, beste nonbait gehitzea eska dezakeen informazioa ez bada. Eta bere garaian eztabaidatuak ere ez zirela ontzat emango. Azkarate andrearen aburuz, ordea, azken bileran ez zen hori erabat errespetatu eta, horrenbestez, orduan onartutako zenbait aldaketa berrikustea proposatzen du.

Xabier Kintanak ez du onartzen lehengo eguneko erabakiak orain atzera aldatzea. Sarasolak erantzun dio esanaz egun hartan erabaki ziren zenbait gauza geure aurreko erabakien kontra aldatu zirela eta oinarri sendorik gabe, aldatu ere.

Otsaileko bilkuran egindako aldaketak direla eta, ontzat eman da M.Azkarateren iritzia:

*Auzo*: iz. kategoria erantsi zitzaion eta onartzekoa da.

*Espetakulo*: ez zegoen hasierako zerrendan. Nazioarteko hitzen zerrendatik sartu zen. Baina Sarasolaren hiztegian *Zah.* dela esaten da. Ez dago arazorik kentzeko.

*Esperto* ere ez zegoen hasierako zerrendan, eta ez zen Nazioarteko zerrendan sartzekoa ere. Ez dago arazorik kentzeko.

*Etxandre* hitza *OEH*-ren arabera, “ama de casa, señora de casa” da. Eta *etxekoandre*, lehena baino askoz erabiliagoa, datuen arabera. Nahi bada, oraingoz utz daiteke horrela, baina bigarren itzulian berriro aztertu beharko da.

Ondoren “Eztabaidarako ohar berriak” izenburupean bildutako oharrak aztertu dira:

Tx. Peillenen oharren azterketak honako emaitza hau eman du:

*Alegera*: *Ipar*. ‘alaia’

*Bakardade*: *Heg.* behar du

*Balderna*: *Lap.* behar du

*Bordalde*: 'etxaldea' kenduko da. Horren ordez 'borda eta ingurua' ezarriko da.

*Fagot*: *Mus.* erantsiko zaio.

*Foka*: *Fam. Phocidae. Sin. Itsas txakur.* Eta *itsas txakur* honen arabera moldatu-ko da.

Andres Urrutiaren oharrak honela gelditu dira:

*Arraingorri* sarreran "fam." oharra ageri da. Onartu da laburduren zerrendan hau ere jasotzea.

*Arrosel* hitzari izen teknikoa eranstea onartu da: *Pagellus centrodontus*.

*Ber* sarreran ageri den "junt" laburdura laburduren zerrendan jasotzea onartu da.

*Bistatik alde egin* horrela idatziko da.

*Boa* sarreran ageri den laburdura, "subfam.", zerrendan jasoko da.

*Brusa/bularretako* sarreran batean *jantzia* eta bestean *janzkia* hitzak erabiltzea ez du egoki ikusten ohargileak. Hala ere, dauden bezala uztea onartu da.

*Euskal Herria* sarrera zuzentzea onartu da: *-a* kenduko zaio eta adibidea erantsiko.

*Euskal Autonomia Erkidegoa* sarreran ere gauza bera: *-a* kendu behar zaio eta adibidea erantsi.

*Ez* sarreran "partikula" ezarriko da.

*Ezdeus*: 1. izond. jarri behar da.

*ezpata(-)belar* sarreran hitz teknikoa ezarriko da: *Carex pendula*.

H. Knörren oharrak:

*Ailegatu*: *Herr.* marka erantsiko zaio.

Aitor: *du* ad. erantsiko zaio.

*Aldiri(ak)*: *aldiriko tren* sarrera eman da, baina hobe dirudi *aldiri* sarrera ematea, adibide bat ondoan duela: *Bartzelonako aldirietan*. Eta gero *aldiriko tren* azpisarrera gisa emango da.

*Alegia*: (partikula) behar du.

*Alha*: adibideren bat erantsiko zaio: *Ordenagailua alhan dut*.

*Amama*: ez zaio markarik erantsiko. Zuberoan ere erabiltzen da, Davantek dioenez.

*fio izan*: *Lgart.* erantsiko zaio.

*Ingurumen* hitza dela eta zalantzak daude, nonbait, bere garaian erabaki zenaz. Nolanahi ere, honako adibide hau erantsiko zaio: *autobideek kalte handiak egiten dizkiote ingurumenari*.

X. Kintanaren oharrak:

*-en fabore* azpisarreraren orde *-en fabore(tan)* nahiago du Kintanak. Erabilerak aztertuz, bi azpisarrerak eman daitezke, biak ugari erabili baitira.

*Gainbegiratu bat egin.* Kintanak *egin* eta *eman*-en arteko zalantza agertu du. Ibiñagabetiak *eman*, Mitxelenak *egin*. Biak eman daitezke.

*Gaizo: Gaizo ni!* adibidea erantsiko da.

*Gazur: Gaztari gazura atera; odol gazura* adibideak sar daitezke, azken *-r* hori biguna dela erakusteko.

*Goratasun* sarreran *Ama Birjinaren goratasuna* jarriko da adibide gisa, *andrede-na Maria*-ren orde.

*Harrezkero: harez gero\** emango da sarrera gisa eta ez *harez\** bakarrik.

*Hedexuri:* ‘jendarmea’ erantsiko zaio eta *Lgart*.

*Hego:* 2. ‘haize-mota’ behar du, parentesia kenduta.

*Ipotx:* sartzekoa da.

Andres Urrutiaren oharrak:

*Film* bere lekura eramango da, alfabeto ordenaren arabera.

*Funditu* sarreran ageri dena *bonbilla* izango da eta ez *bonbila*.

*Has: buru-has* emango da sarrera gisa *buruhas*-en orde eta *has* sarrerako adibideetan, *mahunga-has* ipiniko da, gero hala baitator *mahunga* sarreran.

*Igel:* izen zientifikoa gehituko zaio: *Fam. Ranidae* eta *Hylidae*

*Komuniatu:* paradigma osoa eta erregimena gehituko da. *du* ad. dela esango da.

*Larri* sarreran, 2. adieran “(estutasunekoa)” emango da eta ez “estuasunekoa”.

*Pitean: txitean-pitean* behar du.

*Potka:* bere lekura eramango da

*Postposizio:* laburduretan ere *-t* eta guzti azalduko da.

*Sagarrondo:* izen zientifikoa erantsiko zaio.

*Sekzio:* laburduren zerrendari *Zientz.* laburdura gehituko zaio.

*Sormen:* bere lekura eramango da.

*Suspense:* laburduren zerrendari *Zin.* erantsiko zaio.

Txostenaren B atalera pasatu aurretik, otsaileko batzarrean aurkeztu baina E letrairaino bakarrik onartu zen “Hiztegi Batua. Aldaketa-birmoldaketan berriematea (III)” izeneko dokumentua hartu dute hizpide euskaltzainek. F-Z arteko zerrendan egin diren aldaketak eta egokitzapenak ikusi eta ontzat eman dira. Dena dela, X. Kintanak *batbedera* hitza hartu du ahotan eta zerrendan sartzeari eskatu. *EGLU*-n hitz hori jasoa da-

goenez, sartu beharrekotzat ikusi da, nahiz eta nola idatzi behar den ez dagoen oso argi. Azkenean, bozkatu da eta hamasei boto izan dira **batbedera Ipar**. izord. zerrendan ezartzearen aldeko.

*Horrenbestez* hitzari buruz ere izan da eztabaida, sarrera beregainik ba ote dagoion ala ez. Azkenean, baietz erabaki da. Baina, *hartara* aditzondoaren pareko liritekeen *horretara* eta *honetara* kendu egingo dira zerrendatik oraingo. Bigarren itzulirako hobeto aztertu beharko da hitz hauen kontua.

Ondoren, eztabaidaren gidari jardun duen Miren Azkaratek *G/J* grafien arazoaz eta *-ontzi* eta *-harri* osagaiak dituzten hitz elkartuen idazkeraz diharduen txostenaren azken orrialdeari erreparatzeko eskatu die euskaltzainei. Horretaz ostiraleko bilkuran hartuko da erabakia.

Eta gaueko bederatzia eta laurdenetan amaitu da osteguneko saioa.

\* \* \*

Ostiralean goizeko hamarrak eta hamarrean hasi da batzarra. Oraingoan bere garaian eztabaidatuak izan bide diren kontuak ekarri dira mahaira. Lehenbizi, otsaileko bilkuran egindako aldaketez atzera gogoeta egitea eskatzen da Azkarateren dokumentuan.

Otsaileko bilkuran gertatua prozedurazko hutsegite bat izan zela pentsatuz, zuzendu beharrik baden ala ez ikusi nahi izan da. Horretarako, botoetara jo da: bederatzia boto izan dira zuzentzearen aldeko, hiru kontrako eta bost zuri. Horrenbestez, otsaileko bilkuraren aurreko egoerara itzultzea erabaki da. X. Kintanak, orduan, aurreko bileran egindako defentsa bera egiteko eskubidea aldarrikatu du. Eztabaidaren ondorioz, aurreko aldaketa guztiak atzera bota dira, *atzamar* sarrerari eta *elektrikari* hitzari dagokiena izan ezik. *Atzamar* sarreran, bigarren adiera gisa *Bizk*. 'hatza' ezarriko da. *Elektrikari* hitzari buruz ere lehen hartu zen erabakiari eutsi zaio.

Ondoren, gaur eztabaidatzeko ekarri diren oharrak aztertu dira.

Tx. Peillenek erretiratu egin ditu bere oharrak.

H. Knörren oharrak ere ez dira onartu, baina **ala-2** sarreran parentesi artekoa honela joango da: ("baina ik. *Alafede, alajainkoa*).

X. Kintanaren oharren azterketaren ondorioa honako hau izan da:

*garatxa, garitxa* formak sartzea onartu da: *garitxa*\* e. **garatxo** eta *garatxa*\* e. **garatxo**.

*Giputz* eta *gipuzkoar* sarrerak direla eta, bakoitzari bere lekua emango zaio: **giputz** 1. 'gipuzkeraz mintzatzen dena'; 2. 'gipuzkoarra'. Eta **gipuzkoar** (herritarra).

*Goroldio*: klasea, familia, aurretik ematen da oro har. Dena den *Cl*. behar luke.

*Hel*: *Hel guri!* adibidea erantsiko zaio.

*Hildako* sarrera honela utziko da: **hildako** iz. *Heg. Hildakoen artean* 'hilen artean'.

*Hosto galkor* kendu egingo da. *Hosto erorkor* bere lekuan utziko da.

*ibai(-)adar/ ibaiadar*: *ibaiadar* elkartuta idaztea erabaki da, eta bere lekura eramatea.

*Indoeuopera*: 47. arauan *indoeuopera/indoeuopar hizkuntza* ematen denez, honela agertuko da zerrendan:

**indoeuopar** (herritarra); azpisarrera **indoeuopar hizkuntzak**.

**indoeuopera** (hizkuntza).

*Izterbegi* sarrera aldatzea erabaki da: **izterbegi** batez ere *Zub.* 'etsai pertsonala'.

*Jubilazio*: Urrutiaren proposamena izan zen bere garaian jubilazio\* e. **erretiro** ezartzea, eta hala onartu zen 1998ko urtarrileko bileran (*Euskera* 43, 168. orr.). Gauzak dauden bezala utziko dira. Bide batez, **erretreta** hitzari *Ipar.* marka ezarriko zaio.

J.M. Satrustegiren oharretatik *lamia* hitzari dagokiona bozkatu da. Hamabost euskaltzain agertu dira *lamina* formaren alde; lau, *lamia*-ren alde. Hortaz, *lamina* forma sartuko da zerrendan.

A. Urrutiaren oharrak ere ez dira onartu.

Beti ere iritsitako oharrekin Miren Azkaratek prestatutako txostenari jarraituz, "C. Informazio berria" izeneko atala aztertu da ondoren.

Otsaileko bilkuran egindako aldaketei buruz honako hau izan da emaitza:

*bainu (-) ontzi* sartu zen otsailekoan. *OEHN* ez dago horren lekukotasunik. Dena dela, *bainuontzi* forman sartzea erabaki da.

*bela (-) ontzi* hitz berria izan arren, *belaontzi* sartzea erabaki da.

*disco trinko* azpisarrera hau gehitzeko datuak hobeto aztertu beharko lirateke. Hitz berria da, eta ez da *EEBSen* 10. heinera arteko hitzen zerrendan azaldu. Beraz, bigarren itzulirako uztea onartu da.

*Dinosauro*: hala ematea onartu da bilkuran.

*Epidermis*: ez zetorren hasierako zerrendan. Nazioarteko hitz modura gehitu da. Baina aztertu egin beharko litzateke zein formatan erabiltzen den. Bigarren itzulirako uztea erabaki da.

*espia, espioi*: *espia*\* e. **espioi** ematea onartu da. Eta gero *espioi* bere lekuan sartuko da.

Eztabaidagai diren ohar berrien zerrenda aztertu da ondoren. Peillenen oharrei dagokienez, *arrazakeria*, *autopista* eta *bedar*, berriak izanik, ez dira orain sartzekoak.

*faktura*: ez da orain sartzekoa, *ordainagiri* sin. *faktura* ere ez baitago.

*gerok*: absolutiboa bakarrik sartu da, normala denez.

*gorbera*, *haize gorria*, *haize beltza*, *hegatx-2* eta *horitza*-ri buruzko oharrak ez dira orain sartzekoak.

*min*: (2. izond.) *adiskide mina* adibidea erantsiko da, bigarren adiera horretarako.

*uztar*: oharrean eskatzen den adiera zehaztapena hiztegia osatzean gehitzekoa da. Ez da, horrenbestez, onartu.

H. Knörren oharrak:

*absurdo*: *zentzugabe* hitza hobesteko proposamena ez da orain gehitzekoa.

*aditz-erro*: *aditzoin* sartu denez, ez da orain sartzekoa.

*aditz-izen*: ez da orain sartzekoa.

*baseliza*: *ermita* hobesteko proposamena ez da orain sartzekoa.

*basozain*: *oihantzain* sinonimotzat emateko proposamena ere ez da orain sartzekoa.

*elkarretaratze*: ez da orain sartzekoa.

*geure*: Linschmann-Aresti delako legearen arabera eskatzen den gomendioa ez da gokio hiztegiari.

*giro*: azpisarrerak egonik, ez da adibideen beharrik ikusten.

X. Kintana:

*laboratu* hitzari "h." oharra kentzea ez da onartu.

*laboragarri*, *laboratzaile*: *laboratu Zah.* bada, ez du zentzurik familia osatzeak. Beraz, ez dira sartuko.

*fieltro*: ez dago hain argi nazioarteko hitzak, formaz, berdinak direnik. Ezin da orain sartu.

*futxo*: (harridura adierazteko) gehituko da.

*gezteran egin / ibili*: berriak direnez, azpisarrera hauek sartu aurretik, hobeto aztertu behar dira.

*gisu*: 'karea' da. Adibideak ikustea baino ez dago. Definitzaile hori emango zaio, beraz.

*gotzain*, *gotzaindegi*...: *apezpiku* eta abarren sinonimo direla adierazteko proposamena hurrengo itzulirako utzi da, izatekotan. *Apezpiku* sarreran ez da sinonimorik eman.

*granada*: definizio ez denez, ez da komatxo artean ematekoa. Fruitu adiera berria da, bigarren itzulirako utzi da, datuak hobeto aztertu ondoren.

*grina*: eskatzen den 2. adiera, 'zaldi, txerri eta basurdeen ile latzak', hurrengo itzulirako, izatekotan.

*harem*: bigarren itzulirako, berria baita.

*hipnotiko*, *hipnotizatu*...: ezin dira orain sartu.

*hipotetiko*: ezin da orain sartu.

*hormirudi*: ezin da orain sartu.

*iberiar*: erantsiko da, *iz.* eta *izond.* kategoriak emanaz.

*inpresio*: ez da orain sartzekoa

*isun*: *isuna barkatu* azpisarrera ez da orain sartzekoa; hobeto aztertu behar dira datuak.

*izterbegigo*: ez da orain sartzekoa.

*jakitun*: *jakitun egin*, *jakitun egon*, *jakitun ipini* azpisarrerak eranstea onartu da.

*jardunean egon*, *jarduneko...*: bigarren itzulirako utzi dira.

Ondoren, zintzilik utzia zen *xabalina* sarrerari buruzko txostena aurkeztu da. Kontua *xabalina* ala *txabalina* behar duen litzateke. *Xabalina* forma onartu da aho batez.

*Erabaki beharreko beste auziak.*

*Gfj arazoa duten hitzak.*

Mailegu berriak, oro har, *-g-* grafiarekin emango dira. Beraz, *-j-* grafiarekin arau-tuetatik aldatzekoak izango lirateke: *degeneratu*, *diligentzia*, *erregistro* eta *original* idatziz. Eta erabaki gabe utzitakoen artean, *-g-* grafiarekin beharko lukete beste hauek ere: *prestigio*, *pribilegio*, *sakrilegio*.

Bestalde, ahoskera araua pitin bat "leundu" beharra dakar horrek. Dagokion arauan ageri den aditza aldatuz konponduko da kontua. Araua honela mintzo da: "<g> <e> eta <i> bokalen aurrean beste bokalen aurrean bezalaxe ahoskatu behar da ahoskera zainduan behintzat (hala nola *geologia*)..." Horren ordez, beraz, beste hau eman go da: "<g> <e> eta <i> bokalen aurrean beste bokalen aurrean bezalaxe ahoskatu behar litzateke ahoskera zainduan behintzat (hala nola *geologia*)..."

*-ontzi* eta *-harri*

Barne koherentziaren arabera, bigarren osagitzat *harri* eta *ontzi* dutenak bildu dira. Onartu den proposamena honako hau izan da: *kareharri* eta *segarri* elkarturik ematea, *latsarri* eta *mugarri* bezala. *Iman* (-) *harri* ez litzateke aldatuko, *-nh-* multzoa eragozteko, ezta *behaztopa* (-) *harri* ere horrela erabili baita. Gainera, *botarri* / *bota-harri* eztabaidatu da eta bozkatu: zortzi boto bigarrenaren alde eta sei lehenaren alde. Beraz, *botaharri* onartu da.

*Ontzi* bigarren osagai dutenekin, onartu den proposamen hau izan da: a) lehen osagaia silaba batekoa edo bikoa denean, elkarturik idaztea. Beraz: *baleontzi*, *loreontzi* eta *orratzontzi*; baita *teontzi* eta *laketontzi* ere. b) Lehen osagaia hiru silabakoa denean, ez da elkarturik idatziko.

*Ontzi*, adiera metaforikoa duenean, elkarturik idatziko da. Beraz, aldatu beharrekoak dira *negarrontzi* eta *gezurrontzi*.

*Hiztegi Batuaren argitalpenaz.*

*Hiztegi Batua* onartutzat eman da, horrenbestez. Gero, argitaratzeari buruz mintzatu dira euskaltzainak. Liburuki berean hiztegiak gainera beste arauak argitaratzea ere egoki ikusi da. Pello Salaburu arduratuko da, Sarasolaren eta Aduriz jaunen laguntzaz,

Arauk argitalpen berri honetarako prestatzeaz. Euskaltzainburuaren sarreraz aparte beste sarrera bat ere egingo zaio, beharrezko azalpenak bilduko dituen. Sarrera hau Sarasolaren esku utzi da eta hamar bat egunen buruan helaraziko zaie testua euskaltzainei, dagozkien oharrak egin ditzaten. Honetarako epea ere ezarri da: apirilaren hamazazpirako egon behar dute ohar horiek Pello Telleriaren eskuetan, posta elektronikoz, ahal dela. Horrela, Euskaltzaindiak azken onarpena emango lioke argitaratuko den lanari eta hortik aurrera argitalpenaren babesle den BBVA Fundazioaren esku jarriko litzateke testu osoa.

*UEMA auzia dela eta, J. San Martinen eskaria.*

San Martin jaunak Euskaltzainburuari gutun bat egin dio UEMA-k jaso duen epaiaren aurrean Euskaltzaindiak babesa eman behar liokeela aldarrikatuz. Ontzat eman da proposamena, baina hori bideratzea Jagon saileko Sustapen batzordearen esku uztea egoki ikusi da, Urrutia jauna bileran ez bada ere. Euskaltzaindiak ahala emango lioke batzordeari Euskaltzaindiaren izenean egoki den erantzuna presta dezan. Aho batez onartu da proposamena.

Eta horrenbestez, ordu biak laurden gutxitan amaitutzat eman da hil honetako bilera.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga

\* \* \*